






2 - 13 9 2025

NAK

LUTHERÍA

PAMPLONA IRUÑA



2025. URTEKO EDIZIOA: LUTHERIA

“The Transgressive Practices of Silicon Luthiers” (2015) arteari buruzko bere tesian, Erza Teboulek “silizioaren luthierrak” terminoa erabiltzen du instrumentu elektronikoa, analogikoa eta digitalen sorkuntzara dedikatzen diren pertsonetaz hitz egiteko. Hauen sorkuntzak, teknologia berrietan oinarritutako gailu sonoroak asmatzera bideratuak, iraganeko artisauek bereizi zituen espiritu ausartaren zordun dira.

Ramon Andresek “El luthier de Delf” liburuan kontatzen digunez, XVII. mendean instrumentuen asmakuntzak dimentsio berri bat hartu zuen metalaren langile eta artisauei esker, zeintzuek fisika eta akustikaren alorretan lortzen ari ziren berrikuntzak kontutan hartuz irudikatzen eta esperimentatzen zuten. Garatu zuten egonezin zientifiko horrek, lan erabat zehatz eta guztiz sensorialari lotuta, oso izen iradokitzaileak dituzten mekanismoen garatzea ekarri zuen, organo aereoak bezala, zeinak bere baitan erresonantzia, metalaren estruktura edo soinuaren argitasuna batzen zituen.

Egiari zor, bere ogibidean, garai bateko luthierrak denbora ezaren mugagabe bizi zen, bere lehengaiaren harikortasun eta zentzumenak eraginda. Barra harmonikoak, larakoak eta zubiak egiteko erabiltzen zen egurra aukeratzeko zerebilten kontu eta arretan edo sokak egiteko erabiltzen zuten materialaren aukeraketan, grekoen esferen harmoniaren oinordekotza nabari zen, nonsoka bakoitzak zuen mundu konkretu baten soinuan parekoa eta unibertsoa musikaren kontsonantziak elikatzen zen.

Soinu leun bezain misteriotsua zuten instrumentu hauetariko askok, zeintzuek entzute eta entzule lasai bat behar zuten, ahazturaren ezerezean geratzera kondenatuak zeuden jaiotzen ari zen musikaren industriaren ikusgarritasun soziala medio. Horren ondorioz, balore kalkulazina zuten aleak galdu ziren.

1931. urtean Maurice Martenotek, Ondes Martenot instrumentuaren eta uhin musikalen laborategiaren asmatzaileak, La Lutherie électronique izenarekin birizendatua, bere ikerkuntza eta sorkuntza eremua pasata zeuden mendeetako artisauek tradizioarekin lotzen zuten. Garai bateko egileak bezala, gaitasun mekaniko zein elektronikoa nola uztartu aztertu zuen bere lanean, lutheria berriaren eremuan erreferente bat izatera iritsi arte.



XI. EDIZIOA

Harrezkeroztik, garapen organologia eta teknologikoa paraleloki garatu da eta zibilizazioen garapenarekin gertatzen den bezala, Rainer Maria Rilkek bere “Orfeori Sonetoak” lanean hamarkada bat lehenago esan zuen bezala, teknologia beti izan da mehatxu bat, makina espirituaren menpe ez badago behintzat eta ez alderantziz.

Instrumentuen sorreran dauden paradigma berriak, kodigo irekiko plataformek eskeintzen dituzten aukerak edo 3D inprimaketa tekniken bidezko modelatzea, neurria egindako diseinuak ahalbidetzen dituzten eredu berriak eraikitzea ahalbidetzen dute. Baliabide minimo batzuk dituzten pertsonen kostuak merketzen dizkieten herramienta hauek aukera mugagabeak dituen mundu bat sortzen dute. Honetaz aparte, zalantzarik onartzen ez duen baieztapena da jatorrizko lutheriari datzekion nolabaiteko zentzua galtzea dela, bere gestoek zehaztasuna, denbora geratzen zuen sensorialtasuna.

Baina dena ez dago galdurik. Aintzina bezala, gaur egungo sortzaile askok beren lanaren arreta eta fintasunarekin darraite, beste diziplina batzuekin etengabeko elkarriketan. Errealitateari zor, sormena aurkikintzaren emozioari bateratua egongo da eta, nahiz makinak humanizatzen saiatzen garen eta ordezkari gaitzela pentsatzen dugun, ez dago IArrik zeinak egitate artistiko edo lutheristikoak azaltzeko gai izango denik: gizakiaren hainbat prozesu kognitibo eskatzen dituen sortze-prozedura.

NAK en edizio berri honek gure garaiko lutheria erakusten du, teknologia berriak erabiliz gaur egungo musikari erantzunak ematen dizkieten sortzaileen sensibilitatea ikerkuntza zorrotzaren alde apostu eginez, eraikitze prozesuan darabilten kontu eta gestoak zainduz. Horrela, garai batean sortu ziren instrumenturik ederrenak egiteko erabili zituzten aintzinako jakintzen arimara, literalki, garamatzate.

Yolanda Campos Bergua
NAK Jaialdiaren zuzendari artistikoa.



#SORKUNTZA #PENTSAMENDUA
#BILAKETA #ABANGOARDIA
#KOMUNITATEA



NAK LUTHERÍA

2 - 13 9 2025 PAMPLONA IRUÑA

Asteartea 2	19:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Didaktikoa: topaketa NAK 2025 aurkezpena	+ INFO
	20:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Explorer: soinu instalazioa Xoán-Xil López: "Organismos"	+ INFO
Asteazkena 3	19:30ean	Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa	Didaktikoa: kontzertu Sinfonía Navarra	+ INFO
Osteguna 4	19:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Didaktikoa: topaketa Reyes Oteo	+ INFO
	20:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Didaktikoa: soundpainting emanaldia Centro "Río Irati" "Pintando el sonido" (Zuzendaria: Beatriz Monreal)	+ INFO
Ostirala 5	20:00ean	Baluarte Auditorioan	Tematikoa: kontzertu Reyes Oteo "In Lab with Reyes Oteo"	+ INFO
Larunbata 6	12:00ean	Baluarte plaza	Explorer: soinu performancea Joan Soriano: "Nine Bells"	+ INFO
	20:00ean	Baluarte Auditorioan	Tematikoa: kontzertu SoXXI: "Luth-release"	+ INFO

■ NAK TEMATIKA ■ NAK DIDAKTIKA ■ NAK EXPLORER ■ NAK TXIKI

NAK LUTHERÍA

Asteartea 9	18:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Didaktikoa: kontzertu "Joaquín Maya" eskolako ikas.	+ INFO
	19:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Txiki: performancea "Joaquín Maya" eskolako ikas.	+ INFO
Asteazkena 10	8:00ean	Donapea Iip	Didaktikoa: tailer Amsia: Hardware Musikal I	+ INFO
	19:30ean	Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa	Didaktikoa: kontzertu Alumnado CSMN	+ INFO
Osteguna 11	8:00ean	Donapea Iip	Didaktikoa: tailer Amsia: Hardware Musikal II	+ INFO
	18:00ean	Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa	Txiki: tailer David Aranaz: "El Dracófono"	+ INFO
	20:00ean	Civivox Condestable	Tematikoa: kontzertu Edurne Arizu: "Physis"	+ INFO
Ostirala 12	18:00ean	Civivox Condestable	Didaktikoa: elkarrizketa Xoán-Xil López	+ INFO
	20:00ean	Civivox Condestable	Tematikoa: kontzertu Carles Marigó: "la veu que val"	+ INFO
Larunbata 13	20:00ean	Baluarde Auditorioan	Tematikoa: kontzertu CMC Garaikideak & Xoán-Xil López: "Mímesis orgánica"	+ INFO

NAK TEMATIKOA
 NAK DIDAKTIKOA
 NAK EXPLORER
 NAK TXIKI

NAKLUTHERÍA

KONPOSITORE EGOILIARRA

REYES OTEO

Aurtengo konpositore egoiliarra den Reyes Oterok azken hogeita bost urteetan egin duen lana komunitate artistikoaren zerbitzura dagoen pentsamendu lan sistematikoa izan da, lutheristikoki, estilistikoki eta kontzeptualki aurrera egiten laguntzeko helburua izan duena. Bere obra bakoitza guk genero musikal, partitura, instrumentu edo musika gisa ulertzen dugunaren muga zabaltzeko saiakera edo tresna bat da.

Bere lanaren ildo nagusiak hainbat gaik definitzen dituzte: fenomeno fisiko akustikoak, eletrikoak eta optikoak; kontenplazio estetikoak eta teologia; interpretazio elektroakustikoaren embodiement-a. NAK festibalak autorearekin hainbat topaketa eskainiko ditu: irailaren lauean Civicanen topaketa bat eta bere obraren kontzertu monografiko bat irailaren bostean Baluartan.

SOINU ARTISTA EGOILIARRA

XOÁN-XIL LÓPEZ

Artista sonoro, ikertzaile, musikologo, eta Arte Ederretan doktore, López praktika fonografikoaren (kanpo grabaketen) eta soinu experimentazioaren inguruan aritzen da zeinei esker instalakuntzak, entzuteko murgiltze egoerak, konposizioak, performaceak eta testuak sortzen dituen.

NAK festibalean bere obra ikusgai izango da irailaren 12an Kondestablearen Jauregian egingo den elkarrizketa bati esker, irailaren 13an eskeinitako duen kontzertu bati esker eta festibalak irauten duen bitartean Civicanen egongo den instalakuntza sonoroari esker.



KONPOSITORE GONBIDATUA
EDURNE ARIZU


Artista multidisziplinarra: akordeoilaria, konpositorea, abeslaria eta antzerki eta bideozuzendaria, Edurne Arizuk interprete eta konpositora bezala ibilbide oparoa dauka musika, dantza, zirko eta antzerkiaren eremuetan. Horri esker Europa, Hego Amerika eta Estatu Batuetan barna aritu izan da lanean.

Akordeoilari garaikide gisa musika tradizioana eta jazz progresiboa fusionatzen ditu. Gainera, akordeoiaren eta adimen artifizialaren (nanAI algoritmoa) arteko erlazioa ikertzen du non naturaren inprobisazioa aztertzen duen adimen artifizialaren bitartez. Bere kontzertua Condestablearen Jauregian izango da irailaren 11n.

KONPOSITORE GONBIDATUA
CARLES MARIGÓ

Carles Marigó pianista katalana gaur egungo piano klasikoaren mugak birdefinitzen ari da. Bartzelonako ESMUC eta Moskuko Chaikovski kontserbatorioetan ikasitakoa, interpretazio, inprobisazio eta sorkuntza kontemporaneoaren artean naturaltasunez aritzen da lanean.

Bere unibertso musikala errepertorio klasikoaz, egungo konposizioaz eta iraganeko musiken berrirudimenaz elikatzen da.



NAKLUTHERÍA

KONTZERTU DIDAKTIKOEN KONPOSITOREA

JOSEBA TORRE

Nazioarteko ibilbide sendoa duen autorea, bere jaioterrian, Bilbon, hasi zituen bere musika ikasketak. Jarraien Parisera (Goi Mailako Musika Kontserbatorio Nazionala) eta gero Pittsburghera (Carnegie Mellon University) joan zen bere konposizio eta orkestra zuzendaritza ikasketekin jarraitzeko asmoz.

Bere obrak Espainia, Frantzia, Italia, Alemania, Portugal zein Kubako jaialdi garrantzitsuenetan interpretatuak izan dira. Hainbat orkestra, nazional zein nazioartekoak, talde, elkarte eta jaialditako musika enkargoak izan ditu eta kontaezinak diren sariak jaso ditu bere lanari esker.

Gaur egun bere konposizio lana Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Konposizio katedrarekin uztartzen du.

KONTZERTU DIDAKTIKOEN KONPOSITOREA

DAVID JOHNSTONE

Jaiotzen britainiarra baina espainar nazionalizatua, David Johnstone bere generazioko sokazko interprete sortzaile eta interesgarrienen artean sailkatzen da. Moldakortasun handia erakusten du biolontxelista bezala lan eginez oso desberdinak eta ugariak diren jarduera musikaletan.

30 obra baino gehiago estrenatu ditu bai bakarlari gisa edo talde eta ensemble ezberdinekin batera lan eginez. Royal Philharmonic Orchestra, English String Orchestra, London Concert Orchestra, etb bezalako orkestrekin lan egin izan du. Nafarroako Orkestra Sinfonikoko bolontxelo solista da baita Garaikideak Ensenblearen parte (sorkuntza garaikidearekin konprometitua), non interprete eta konpositore bezala aritzen den.



KONTZERTU DIDAKTIKOEN KONPOSITOREA LEIRE UNZUÉ


Leire Unzue Villanuevak (Agoiz, Nafarroa, 1996) bere ikasketa musikalak 7 urtetan hasi zituen Agoitzako Mariano Garcia Musika Eskolan Emilio Estévez irakaslearekin. Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean jarraitu zituen bere ikasketak eta, ondoren, Goi Mailako titulua eskuratu zuen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan. Interpretazio Master bat burutu zuen Gaztela-Mantxako Goi Mailako Kontserbatorioan eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoan Irakaskuntza Masterra ere bukatu zuen.

Bere ibilbide musikalean zehar, Francisco Javier Oyarzun Beka jaso zuen (2012 eta 2015) eta Erasmus+ beka ere bai (2017-2018). 2022. urtean Saxiana International Competition lehiaketan lehen saria jaso zuen; 2013an, Kuarist laukotearen baitan, Castellon de la Planan ospatutako Re_Cre@ txapelketan lehen saria jaso zuen. Gaur egun Iruñako Joaquín Maya Musika Eskolako eta Agoitzko Musika Eskolako saxofoi irakaslea da.

KONTZERTU DIDAKTIKOEN KONPOSITOREA LUIS GILA

Luis Gila Userosek (Vegas de Matute, Segovia, 1960) oinarrizko solfeo eta bibolin ikasketak Madrilgo Kontserbatorioan burutu zituen hirurogeita hamargarren hamarkadaren bukaeran. Ogibidez medikua, 2010. urtean musika jardunari berriz ekin zion Jokin Idoaterekin kitarra kurtsoak eginez, Iñaki Ramosekin, Gorka Pastorrekin eta Yolanda Campos Berguarekin konposizioa landuz, eta, egun, Isabel Valenciaren piano ikaslea da Barañaingo Musika Eskolan.

Salud Abeslariak koruko partaide da sortu zenetik, 2016ean, zeinarentzako hainbat obra idatzi dituen. Bandarako ere zenbait pieza idatzi ditu, melodia herrikoiak eta doinu erligioso zein kiroletakoak. "Canciones de Siempre" Barañaingo taldeak, zeinaren parte den, bere kanta asko ditu errepertorioan.



EGITARAU 2-13 IRAILA

KONTZERTU TEMATIKOAK

OSTIRALA IRAILAREN 5A

REYES OTEO

“In Lab with Reyes Oteo”

Baluarte Auditorioa, Harresiaren sala. 20:00ean.

Sarrera: 15 €.

Reyes Oteoren monografikoa.

Reyes Oteok, edizio honetako konpositore egoiliarak, azken hogeita bost urte hauetan garatu duen produkzioa, komunitate artistikoaren zerbitzura dagoen pentsamendu-lan sistematiko bat da, lutheristikoki, estilistikoki eta kontzeptualki aurrera egiten laguntzeko. Idatzi duen obra bakoitza gaur egun genero, partitura, instrumentu edo musikatzat ulertzen dugunaren limiteak zabaltzeko herramienta edo froga bat da.

Bere lanaren oinarrian hainbat gai ezberdin daude bere produkzioaren lan-ildoak direnak: fenomeno fisiko akustikoak, elektrikoak eta optikoak, begiespen estetikoak eta teologia, edo interpretazio elektroakustikoaren embodiment-a. Laburbilduz, bere konposizio praxisa zeharkatzen eta batzen duen lan ildoak: partitura, materia, instrumentua, kontzeptua, espiritua...

Gaurko kontzertua, erabateko hiru estreinaldi barne hartzen dituen, autorearen obren aukeraketa bat da, hainbat euskarri plastiko, bideo, elektronikoko eta perkusio euskarrien beharrei lotuta eta bere formatu handirako obrak entzungai diren dokumental bat gehituta, hala hola, opera interaktibo eta ikuskizun eszenikoak, zeintzuek jaialdiaren enkarguzko obraren bidez aurkezten diren.



PROGRAMA

- **Partitura Cero (2022)***, marinba likidorako.
- **Suite sobre el silencio (2019)***, zintarentzako.
 - I Primero
 - II Silencio
 - III Martinete
 - IV Scherzo
 - V Dolce
- **Tehom (2003)**, zintarentzako Fernando Arrabalen “Se ha vuelto Dios loco?” liburuan oinarritua.
- **Sixpoint Sweet Action (2023)***, marinba likidorako. Hiru soporte plastiko eta eskultorikori buruzko psikonautika: artista liburua, ur-tintak eta neonarekin iragazitako poliestirenoa.
 - I- Libro
 - II- Nube
 - III- Cuerpos
- **Por la calle de Amargura (2008)**, zintarentzako Eduardo Oconen musika kantutegian oinarritua.
- **Yo soy el monstruo rana (2020)**, soporte finkoko elektronikarentzako, argiberdean egongo den 18 kiloko soporte gaineko partitura eszenografikoa, txalaparta, bonboa, tam-tama, lehoiarne orroa, krakebak, roto-tomak, crasherrak, opera gongak, tanbor eta mailu balaztentzako.
- **Rosa mystichae (2009)**, zintarentzako, Alfonso X Jakintsuaren Kantiga batean oinarritua.
- **In Lab with Reyes Oteo (2025)****, bideo, elektronika eta perkusiorako.

***Erabateko estreinaldia**

****Erabateko Estreinaldia. NAK Jaialdiaren enkarguzko obra.**

TALDE ARTISTIKOA:

- **Musika konposizioa, gidoi eszeniko eta elektronikoa:** Reyes Oteo
- **Perkusioa:** Juanjo Guillem
- **Bideografia:** Victor Jiménez
- **Soinu diseinua:** Ruy Martín
- **Soinu grabatuak:** Rafa Gálvez

LARUNBATA IRAILAREN 6A

SOXXI

“Luth-release”

Baluart Auditorioa, Harresiaren sala. 20:00ean.
Sarrera: 15 €.

P. Kokoras, A. Cole, eta L. Franz Aguirreren obrak.

“Luth-release” proposamenak lutheriaren kontzeptua zabaltzen du, arteen diziplinartekotasunetik modelatutako mekanismo berritzaileak aurkeztuz.

NAKLUTHERÍA

Kontzertu honetan soinu elektronikoak, jostailu musikalak eta 3D inpresoren bitartez sortutako instrumentuak entzungai izango dira, instrumentuen sorkuntzan egun dagoen globalizazio eta demokratizazioa erakutsi nahirik.

Amaiera gisa, Joan Soriano luthierraren lan eta ikerkuntzei esker, instrumentu berri eta bakar bat aurkeztuko da, kontzertu honetarako espresuki sortua: *Ragaphonea*: afinazio mikrotonala du eta H. Cowell, M. Ishii eta I. Xenakisek sortu zituzten instrumentuen jarraipena da baina afinazio zehatzago batekin. Honela, afinazio tenperatua duten instrumentuekin elkartu daiteke gaur egun ezagutzen ez diren tinbre berriak sortuz.

PROGRAMA

- **Inside the color spectrum (2021)** - Amanda Cole.
Afinatutako kristalezko kopentzako zuzeneko elektronikarekin.
- **Pac-man (2024)** - Panayotis Kokoras.
Gailu, musika jolas eta 3Dn inprimatutako instrumentuentzat.
- **Gloria. (Bembé a la nativité de mes Orihas (2024-25))*** - Louis Franz Aguirre.
Perkusionista-abeslari eta ragaphon seikoterako.

***Bertsio berrikusiaren estreinaldia NAK Jaialdirako**

TALDE ARTISTIKOA: Oscar Martí, Andreu Queralt, Sergi Dauder, Miguel Ángel Real y Josep Furió (perkusiolaria); Joan Soriano (lutheria eta perkusioa).



OSTEGUNA, IRAILAREN 11A

EDURNE ARIZU

“Physis”

Civivox Condestable. 20:00ean.
Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

Edurne Arizuren monografikoa.

“Physis”-ek soinu-miaketa bat proposatzen du, lutheria elektronikoaren arloan akordeoiaren mugak eta akordeoiaren kontzeptu hedatua birdefinitzeko.

Nan-AI adimen artifizialaren algoritmoarekin (espresuki momentuan inprobisatzeko diseinatua), efektuen pedalekik, samplerrekin eta ahotsarekin uztartuta instrumentua birmoldatzen du, gizakiren eta teknologiaren, naturalaren eta artifizialaren arteko elkarrizketa musikal bati bide emanez, non tradizioa eta berrikuntza elkartzen diren esperientzia biderkatzaile bat sortuz. Programa hau lau obrek osatzen dute, zeinetatik bat NAK Festibalarentzako sortutako erabateko estreinaldia den.

Estreinaldi honek garapen teknologikoak funtsezko materialetan duen eraginari buruzko gogoeta egiten du, publikoa musika eta instrumentu sorkuntza berria, geologia eta adimen artifiziala gure planetari eragiten ari zaion kostua lotzen dituen soinu-paisaia batean murgilduz.

PROGRAMA

- **Physis (2023)**
 - Taxis
 - Ethos
 - Vomvos
- **Tierras raras (2025)***

****Erabateko estreinaldia NAK Jaialdirako.***

TALDE ARTISTIKOA:

- **Idea originala:**
Edurne Arizu y Carles Murillo.
- **Konposizioa eta interpretazioa:**
Edurne Arizu.
- **NaN-Ai algoritmoaren desinua:**
Enric Guaus y Félix Pastor.
- **Zuzeneko interpretazioa:**
Edurne Arizu, Enric Guaus y Félix Pastor.



NAKLUTHERÍA

OSTIRALA IRAILAREN 12A

CARLES MARIGÓ

“la veu que val”

Civivox Condestable. 20:00ean.
Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

Carles Marigóren monografikoa.

“la veu que val” pianoaren ahots ezkutua esploratzeko bidaia bat da. Luthier batek edozein materialen baitan dagoen ahots propioa bilatzen duen bezala, kontzertu honek pianoaren bihotzean sakontzen du hitz eginarazteko, bere identitatea eraldatzen duten eta publikoaren irudimena esnarazten duten soinuak erakutsiz.

Kontzertu honetako egitaraua emanaldi honetarako espreski sortua da eta NAK Jaialdian osorik estrenatuko da. Obrak artistaren bizipen pertsonal oso sakon batean oinarritzen dira: bere lehen semearen jaiotza.

Teknika hedatuen eta objektuen erabileraren bidez, pianoa eraldatu egiten da soinu unibertso bizi eta harrigarri bat aurkitzeko. Soinu esperientzia guztia esku-hartze elektronikorik gabeko instrumentu akustikotik soilik etorriko da eta eta entzuleak luthier baten tailerrera joango bailiran sormen-prozesu baten erdian. Kontzertua entzuleak pianora hurbiltzeko gonbite batekin amaituko da, galderak egin eta prozesu eraldatzaile honekin zuzenean harremanetan egoteko.

PROGRAMA

- **Big Bang**
- **Semilla**
- **Latido**
- **Corriente**
- **Alba**
- **Umbral**
- **Eco**
- **Mirada**

****NAK Jaialdirako estreinaldiko programa osoa.***

TALDE ARTISTIKOA

Konposizio eta interpretazio musikala:
Carles Marigó.





LARUNBATA IRAILAREN 13A

CMC GARAIKIDEAK & XOÁN-XIL LÓPEZ

“Mimesis orgánica”

Baluarte Auditorioa, Harresiaren sala. 20:00ean.

Sarrera: 15 €.

***Y. Campos, D. Cantalejo, I. Fdez. Galindo, D. Johnstone eta X. Lópezen obrak.
Estreinaldiz bakarrik osatutako egitaraua.***

Garaikideak Musika Garaikidearen Zentroaren ikerkuntza eta sorkuntza lan berriak, Xoán-Xil López musikari eta soinu gailuen sortzailearekin batera garatua, “Organscape / Organismo” instalakuntza oinarri duen proposamena da, non artistak sortutako hainbat mekanismok mundu naturalari lotutako soinuen errepertorioa simulatzen duten.

Partituren sorkuntza soinuaren mimesietan oinarritzen da, paisaia akustikoan dauden “zarata” horiek abiapuntu bezala hartu eta, ustez, balore musikalik ez dutenak. Egitarauan dauden obrak, NAK Jaialdirako erabateko estreinaldiak, instrumentu bakarlari eta automatentzako estilo konzertatedun obra klasikoak garatu dituzte. Automatak konposizioetan era interaktiboan erabiltzeko eguneratuak izan dira.

Hasierako instalazioaren koherentzia mantenduz, jatorrizko soinu guztiak haizearen eraginez edo haize automatikoaren eraginez sortzen dira. Partituren diskurtsoak mimesiari buruzko tratamendu filosofikoa batzen du, greziar jatorritik hasi eta beste diziplina batzuekiko elkarriketatik eratorritako ikuspegi garaikideenataraino.

NAKLUTHERÍA

PROGRAMA

- **Mimesis sonora I (2025)*** - Yolanda Campos Bergua.
- **Mimesis sonora II (2025)*** - Ignacio Fdez. Galindo.
- **Mimesis sonora III (2025)*** - David Cantalejo Gómez.
- **Mimesis sonora IV (2025)*** - David Johnstone.

***Erabateko Estreinaldia. NAK Jaialdiaren enkarguzko obra.**



TALDE ARTISTIKOA

- **Konposizio eta interpretazio musikala:** CMC Garaikideak & Xoán-Xil López.
- **Konpositoreak:** Yolanda Campos Bergua, David Cantalejo, Ignacio Fdez. Galindo, David Johnstone, Xoán-Xil López.
- **Interpretatzaileak:** Irene Villar (zeharkako xirula), Bea Monreal (oboea), Aitor Urkiza (txistua), Xabier Olazabal (akordeoia), Xoán-Xil López (soinu gailuak eta elektronika).

DIDAKTIKOA: KONTZERTUAK

ASTEAZKENA IRAILAREN 3A

SINFONÍA NAVARRA

“Arimaren eskola: sorkuntza”

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa. 19:30ean.
Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

NGMMK Konposizio Gelarekin koordinatutako jarduera. Nafarroako Musikaren Hiriaren elkarlanarekin.

E. Marín, I. Txapartegui, J. Carabias, A. Galán eta I. Lezaunen obrak.

NAK Jaialdiaren kontzertua oso gertakari berezia da, gure ideien oinarri garrantzitsuenetariko bat bultzatzeko aukera baita: belaunaldi berrien sorkuntza eta interpretazioak laguntzea eta sustatzea.

Aurtengo edizioan Sinfonía Navarrarekin elkarlana hasiko dugu, 2021an sortutako ganbara-orkestra bikaina zeina estatu mailako zein nazioarteko kontserbatorio ospetsuetan prestakuntza sendoa jasoa duten musikariz osatua dagoen

Javier Echarriren batutapean erabateko bost estreinaldi aurkeztuko dira, denak ere Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Konposizioko ikasleek idatziak. Honela, jaialdiak apostu sendo bat egiten du gaur egungo eta etorkizuneko sorkuntza berriari lotuak dauden musikari gazte eta talentudunei ahotsa eta aukerak emateko.

Inoiz entzun ez den musika, Izaro Txapartegui, Eduardo Marín, Jorge Carabias, Arkaitz Galán eta Inar Lezaunek konposatua hogeit hamar musikaririk parte hartuko duten kontzerturako eta maila profesional batean konpositore gazteei beraien lanak aurkezteko aukera emango diena.

PROGRAMA

- **Shrotovaaha (2025)*** - Arkaitz Galán.
- **Stantia (2025)*** - Eduardo Marín.
- **Kronotxoriak (2025)*** - Inar Lezaun.
- **Hauste (2025)*** - Izaro Txapartegui.
- **Cruzar el hilo (2025)*** - Jorge Carabias.

***NAK Jaialdirako estreinaldiko programa osoa.**

INTERPRETEAK:

Sinfonía Navarra: Zuzendaria: Javier Echarrri. **Zeharkako Xirula:** Raquel Rivera. **Oboea:** Andrea Bellosta. **Klarinetea:** Sergio Urtasun. **Fagota:** Peio Berasategui. **Tronpa:** Saioa Loinaz. **Tronpeta:** David Lanz. **Tronboia:** Eneko Azparren. **Tronboi bakarlariak:** Alejandro Carrascoso, Román Angulo. **Perkusioa:** Santiago Pizana. **Bibolinak:** Elorri Askasiba, Fermin Aramendía, Garazi Etxeandía, Leire Fernández. **Biola:** Giovanna Azzone. **Biolontxelo:** Alba Reiris. Kontrabaxua: Txuma del Río

Irakaslegoa: Joseba Torre.



NAKLUTHERÍA

OSTEGUNA IRAILAREN 4A

CENTRO “RÍO IRATI”

“Pintando el sonido”

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 20:00ean.

Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

Soundpainting erakusketa. Centro “Río Irati” - Nafarroako Kutxa Fundazioarekin elkarlanean.

Soundpainting jarduera (hainbat musika eta ahots taldek erabiltzen duten lengoia artistikoa, diziplina anitzeko zuzeneko konposizio eta interpretaziorako balio duena) musikaren bilaketa prozesuari ikuspegi interaktibo eta dinamiko batetik heltzen dion esperientzia da. Helburua musikaren bitartez espresatzeko gaitasuna sustatzea da, gizaki guztiok datxekizkigun muskarako trebetasunak garatzea eta modu aktibo eta partehartzaile batean musikaren sorkuntza prozesuarekin esperimentatzea.

“Centro Irati” desgaitasuna duten pertsonentzako garapen zentroarekin elkarlanean garatua, ikasturtean zehar landutako inklusio eremuko erakustaldi honek orkestra txiki bateko kide bihurtzeko aukera emango die partehartzaileei.

Zuzendari musikala: Beatriz Monreal.

Centro “Río Irati” dozentea: Eider Leoz.



ASTEARTEA IRAILAREN 9A

“JOAQUÍN MAYA” MUSIKA

ESKOLAKO IKASLEGOA:

“Arimaren eskola: aurkikuntza”

Civican - Nafarroako Kutxa Fundazioa. 18:00ean.

Sarrera: Doakoa aurrez izen emanez.

“Joaquín Maya” eskolako Saxofoi, Txistu, Zeharkako Xirula eta Pianoko ikasle zein irakasleekin koordinatutako jarduera.

L. Unzué, L. Gila, D. Jonhstone eta I. Taldearen obrak.

Bere lehenengo kolaboraziotik urte betera, NAK-ek “Joaquín Maya” Musika Eskolako ikasleei harrera egingo die, zeinaren izenean talde gehiagok parte hartuko duten.

Kontzertu honetan entzungai izango diren hainbat obra emanaldi honetarako ad hoc sortuak izan dira. Erabateko hiru estreinaldi izango dira, zeintzuek errepertorio pedagogikoa berritzeko eta musikaren belaunaldi berriak XXI. mendeko musikan sartzeko helburua duten.



Ezin huts egin daitekeen hitzordua da, musika-hastapeneko hogeik ikaslek parte hartuko baitute zeintzuek inplikaturako irakasleen lan eskergari esker taularatuko diren.

PROGRAMA

- **Lekuak (2025)*** - Luis Gila.
- **Paso a paso (2025)*** - David Johnstone.
- **Da Capo (1947 - 1963)** - Iruñeako Taldea.
Piezas: 5, 9, 10, 12, 14, 15, 17, 19, 20, 23.
- **Haizete (2025)*** - Leire Unzué.

***NAK Jaialdirako erabateko estreinua.**

INTERPRETEAK

Saxofoiak: Adrián Tanarro, Aitana Ayala, Ander Aldaz, Aritz Mantso, Carla Medina, Ester Ube, Lucia Sorbet, Martín Amezaga, Oriol Escubi, Zoey Chen.

Zeharkako xirulak: Amaia Garaikoetxea, Amaia Ortuño, Beatriz Erro, Daniela Foko, Daniela Moposita, Elma Lizar, Iranzu Azkona, Irene Huarte, Leyre González, Leyre Zafra, Nicolás Iragui.

Pianoak: Aaron Peinado, Anne Eransus, Bega Romera, Luis Estrella, Marta Echaury, Olaia Chen Jiaxin, Oliver Garbayo, Rodrigo de Assis, Sofía Guadalupe, Valeria Adrián.

Txistu Taldea: Adrián Láinez, Asier Irisarri, Beñat Íñigo, Koldo Berasategui, Miren Oiz, Patxi Rodríguez, Uxue Anguiano (txistu), Amaia Cortés, Amparo Argiñena, Maider Moreno (silbote), Beatriz Agirre (acordeón), Asier Herrero (bombardino), Ainhoa Martínez (piano).

Irakaslegoa: Ainhoa Martínez, Alfonso Iturria, Ana Teresa Rodríguez, Ángela Irisarri, Francisco de Miguel, Joel Reynoso, Leire Unzué, Mariola Biurryn, Nuria Abadía.



ASTEAZKENA IRAILAREN 10A

NGMMK IKASLEGOA

“Arimaren eskola: hazkuntza”

Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioa. 19:30ean.

Sarrera: Doakoa edukiera bukatu arte.

NGMMK-ko Saxofoi, Akordeoi, Txistu eta Ganbera Musika aulekin koordinatutako jarduera. Nafarroako Musikaren Hiriaren elkarlanarekin.

J. Torre, M. Aritzmuño, M. Rodríguez, V. Martín, R. Hoffman, Y. Takahashi eta D. Cantalejoren obrak.

Interpretazioko eta ganbera musikako ikasleek XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako erreperatorioko musika ibilbidea eskainiko digute, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko hainbat interpretazio aula biltzen dituen diziplina anitzeko kontzertu batean.

M. Aritzmuño, M. Rodríguez, V. Martín, R. Hoffman, Y. Takahashi eta D. Cantalejoren obrekin, eta Joseba Torre konposatzailearen erabateko estreinaldi batekin, NAK Jaiadirako idatzitakoa berau, goi mailako musika ikasleak beraien kurtso akademikoan zehar egindako lanaren zati bat erakutsiko dute. Ikaslego eta irakaslegoaren lan nekaezinaren eskutik jaialdian sendotzen den jarduera honek ahalbidetzen du 20 parte hartzaile baino gehiagoko talde bat taula gainean ikusteko aukera izatea.

PROGRAMA

- **Cataclismo (2012)** - David Cantalejo. **Interpreteak:** Ane Telletxea (txistua), Uxue Ardanaz (txistua), Iker Baztán (perkusioa), Miguel Basarte (perkusioa), Alberto Martín (pianoa).
- **Fata Morgana (2025)** - Markel Ariztimuño. **Interpreteak:** Vindur Quartet: Lierni Santurtun, Malena Dominguez, María Valencia, Nerea González (zeharkako xirula).
- **Like a water buffalo (1985)** - Yuji Takahashi. **Interpreteak:** Andoni González (akordeoia).
- **Sempiternum (2025)** - Mikel Rodriguez. **Interpreteak:** Cuarteto Tarab: Elena Asín (oboia), Martín Olmedo (fagota), Mikel Urdin (klarinetea), Sara Cuenca (zeharkako xirula).
- **Zaballa Street (2025)** - Victor Martínez. **Interpreteak:** Alma Velloso (bibolina), Adrián Martínez (akordeoia), Raquel Pascual (pianoa).
- **Transición (2025)*** - Joseba Torre. **Interpreteak:** Andoni González, Hegoi Bértolo, Iñigo Pascual (akordeoia); Héctor Ruiz, Pepe Gallego (saxofoia).

Irakaslegoa: Ángel Soria, Francesca Croccolino, Garaine Jorajuría, Nekane Iturrioz.

***NAK Jaiadirako erabateko estreinaldia.**

DIDAKTIKOAK: TOPAKETAK ETA ELKARRIZKETAK

ASTEARTEA IRAILAREN 2A

NAK 2025EN AURKEZPENA

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 19:00ean.

Sarrera: Doakoa aurrez izen emanez.

NAK Jaialdiak bere irekiera ekitaldia Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioak bultzatzen duen pentsatzeko toki eta kultura partekatua gunean. Ikusle eta entzuleekin tokpaeta bat izango da non jaialdiaren zuzendaritza batzordeak edizio berri hau egituratzen duten lan ildoak eta Xoán-Xil López artista egoiliarra aurkeztuko diren.

Jaialdiaren programazioren ildo nagusiak izan diren irakurliburu eta hausnarketak partekatze momentua izango da; Civicanen liburutegiaren katalogoa osatuko duten liburuak izango dira eta, gainera, Ramón Andrés, Susana Jiménez Carmona edo Gilles Deleuze pentsalariak bilduko ditu.

Partehartzaileak: Xoán-Xil López, Yolanda Campos Bergua, Ignacio Fdez. Galindo y Javier Fernández Valdivielso.

OSTEGUNA IRAILAREN 4A

REYES OTEOREKIN TOPAKETA

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 19:00ean.

Sarrera: Doakoa aurrez izen emanez.

NAK'25eko konpositore egoiliarra, filosofian doktore eta luthier elektronikoa den Reyes Oteorekin topaketa, zeina musika instrumental experimentatzaile eta elektroakustikoaren erreferente den.

Elkarrizketa konposatzailearen sorkuntza prozesuari eta unibertso sonoroari buruzkoa izango da, zeinak hogeita hamar instrumentu elektronikoen interaktibo baina gehiago garatu dituen, hala nola, Fruktofonoa, Wormphonoa edo Jaw Magnetotaxia, lutheriaren esparruan ikerketa bide progresiboa bideratuz.

Moderatzailea: Ignacio Fdez. Galindo.

NAKLUTHERÍA

OSTIRALA IRAILAREN 12A

XOÁN-XIL LÓPEZEKIN ELKARRIZKETA

Civivox Condestable. 18:00ean.

Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

Xoán-Xil López artista sonoro eta ikertzailearekin topaketa. Musikologoa eta doktorea Arte Ederretan, bere lana praktika fonografikoaren (landa-grabazioa) eta soinu-esperimentazioaren ingurukoa da, eta instalazio, entzuteko egoera murgiltzaile, konposizio, performance eta testuak dira bere erakusgarri.

Elkarrizketaren gaia autorearen luthariari buruzkoa izango da, zeinek hainbat instrumentu elektronikoa eta gailu sonoro, Organscape / Organismo esaterako, sortu dituen. Azken honekin Prix Ars Electronica 2021n (Austria) saritua izan zen eta NAK-ek irauten duen bitartean ikusgarri egongo da.

Moderatzailea: Ignacio Fdez. Galindo.



DIDAKTIKOA: TAILERRAK

ASTEAZKENA IRAILAREN 10A

JAVIER UCAR "AMSA"

Sintetizadore modular analogikoak I

IIP Donapea, 8:00ean.

Sarrera: IIP Donapeako ikasleentzat bakarrik.

"IIPDonapea" Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoarekin lankidetzan.

Hardware musikalaren tailerrak, 2016. urteko edizioan hasi zirenak, ikuspuntu berri bat izango dute aurtengoan "CIP Donapea" Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoarekin lortu den lankidetzaren berriari esker. Helburuak ikasleen arteko dinamika partehartzaileak sortzea eta ezagutza partekatuari irekitako espazioak eskaintzea dira.

Lanbide heziketako Goi Mailako Soinu ikasleei zuzendua, tailerrak testuinguru historikoa etasintetizadore modular baten sorkuntza/eraikuntzan kontutan hartu behar diren oinarrizko irizpideak zein diren landuko ditu (eztainuarekin egindako soldadura, osagai elektronikoak, soinuari lotutako elektronikari buruzko kontzeptuak, soinu sintesiaren hastapenak...).

OSTEGUNA IRAILAREN 11A

JAVIER UCAR "AMSA"

Sintetizadore modular analogikoak II

IIP Donapea, 8:00ean.

Sarrera: IIP Donapeako ikasleentzat bakarrik

"IIPDonapea" Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoarekin lankidetzan.

Hardware musikolari eskainitako bigarren tailerra. Sintetizadore modular baterako moduluak fisikoki nola eraiki irakatsiko da.

Tailer hauetan eraikiko den sistema edo sintetizadorea ikastetxean geratuko da etorkizuneko erabileretarako, formakuntza jardueretarako edo jarduera ludikoak bultzatzeko (topaketak, elkarriketak, ikuskizunak, zuzeneko musika...).



TXIKI:

PERFORMANCE ETA TAILERRA

ASTEARTEA IRAILAREN 9A SOINU PERFORMANCEA

“Automatekin inprobisatuz”

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 19:00ean.
Sarrera: Doakoa edukiera bete arte.

“Joaquín Maya” Musika Eskolako ikasleak performance kolektibo bat egingo dute “Organscape / Organismo” soinu instalakuntza abiapuntu bezala hartuta, edizio honetako artista egoiliarak sortua. Inprobisazioa, zuzeneko musika sorkuntzat hartzen dena, ikasleei musikalitatea ikuspuntu interaktibo batetik gerturatzeko baliagarria da, hauen garapen musikalerako funtsezkoa dena.

Jarduera honekin, jokua eta bizipenen bitartez, partehartzaile guztiak zuzeneko musika esplorazioan sendotzea da helburua Xoán-Xil Lópezek sortutako automata sonoroekin interaktuatuz.

OSTEGUNA IRAILAREN 11A DAVID ARANAZ

“El Dracófono”

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 18:00ean.
Sarrera: aurrez izen ematea 15 pertsona.

6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra.

“Drakofonoa” (draco-fono), umeei objektu bibrazaile, soinu eta musikari buruzko esperientzia aktibo, integral eta motibagarri bat bizi dezaten garatu den tailer bat da, zeinaren helburua partehartzaile guztiak luthier eta musikari inprobisatzaile bihurtzea den.

Baschet erako eskultura sonoroak edo El Dracófono obra berinterpretatuko edo birsortuko dira. Lutheriaren ikuspuntutik, soinuaren ezaugarriak antzemango dira bere oinarriko elementuetatik hasita; hainbat material bibratuaziz, hainbat sensazio eta giro sonoro sortuz, eta espresibitatea garatuz lankidetzeta eta partehartzea sortu nahi dituen giro batean, ekintza ludiko, praktika eta musika tresnen sorkuntza xede dituen jarduera baten bitartez.

Irakaslea: David Aranz.



EXPLORER: INSTALAZIOA ETA PERFORMANCEA

ASTEARTEA IRAILAREN 2A

XOÁN-XIL LÓPEZ

“Organscape / Organismo”

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa. 20:00ean.

Sarrera: Doakoa aurrez izen emanez.

“Organscape / Organismo” instalakuntzaren inaugurazio eta abiatzea, Xoán-Xil López soinu artista, ikerlari eta luthierraren eskutik. 2021eko Prix Ars Electronian (Austrian) saritua, Jaialdiak irauten duen egunetan ikusgarri egongo da.

Lan hau soinu paisaiaren mimesis musikalaren ideiatik sortu da. Instalazioa organo batzuetan aurki ditzakegun erregistro berezi batzuei buruzko ikerkuntza batetik abiatzen da, barroko garaikoak gehienak, soinu paramusikalak imitatzea helburu dutenak, txori edo trumoi soinuak, esaterako.

LARUNBATA IRAILAREN 6A

JOAN SORIANO

“Nine Bells”


Baluarte plaza. 12:00ean

Entrada: doakoa. Eguraldi txarra balego jarduera hau Baluarte Auditorioko Harresiaren Salan burutuko litzateke.

“Nine Bells” (1979) automobilen bederatzi aluminio aleazioko hagnentzako eta oinezko interprete batentzako sortutako performance bat da. Tom Johnson konpositoreak idatzia, orain gutxi zendu zena eta NAK Jaialdiak aurtengo edizioan omenaldia egingo diona, XX. mendeko korrante minimalistaren obrarik ikonikoetako bat da.

Joan Soriano luthier eta perkusiolariak 415 Hz-tan afinatutako hagnentzako bertsio bat proposatzen du, zeintzuek burnizko egitura batean jarrita, batasun zentzu bat ematen dion multzoari eta mega instrumentu batean bilakatzen den. Soinu eraikuntzaren eta espazioaren eta denboraren arteko harremanean ibiltzeko eta sakontzeko aukera izango da.





Jarduera eta kontzertu guztiek sarrera librea daukate, aretoaren edukiera bete arte, Baluarte Auditorioan ospatuko diren kontzertuak izan ezik. Sarrerak gure web gunetik edo Baluartearen web orritik eros daitezke (www.baluarte.com).

Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioan burutzen diren jarduerak aurrez izena ematea eskatzen dute. Horretarako mezu elektronikoa bat bidal dezakezu (informacioncivican@fundacioncajanavarra.es) edo Nafarroako Kutxa Fundazioaren telefonora deitu (948 222 444) jarduera bakoitza hasi arte.

Kontsultatu informazio guztia www.nakfestival.com web gunean.



IMPULSA • SUSTATZAILEA



ORGANIZA • ANTOLATZAILEA



SUBVENCIONA • DIRUZ LAGUNTZEN DU



COLABORAN • KOLABORATZAILEAK

